

# Liburuak

KRITIKA


## Apatxekin idazten

Helduen literatura | POESIA

Igor Estankona

BERTSO luze baten lehen puntua balitz bezala, eta hasierako poemari beti eman behar zaion potentziarekin, maisutasunez irekitzen ditu Gerediagak atea, zeharkatu egiten ditu zentauroak lez zelaia. Oraingo amodioaren eta bere bizitza osoaren pasarteak dakartza, lurra eta bihotza, ama eta aita, etxearen defentsa eta izerdia eta mina eta heriotza eta bizitza eta heriotza eta berriro bizitza daude bilboztarraren poesia erdi-erditik eta estalkirik gabe sortutakoan. Ez dauka eskrupulurik, galgarik, ez dauka denborarik galtzeko.

Sukarrak jotako *Fitola balba, karpuki tui* (Pamiela, 2004) baino harago doa Gerediaga *Zentauro-bankak* honetan. Orduko liburu ausart eta berdearen inguruan bagenioen azertu eta arriskueta erori zela, oraingoa esan behar dugu gizon emakumeen ametsen eta zentzumenen mugara hurretratzea plazer hutsa izan dela. Jadanik Gerediagaren idazkera ez da “interesgarria” edo “berritzaile”



*Zentauro-bankak.*  
Jon Gerediaga.  
Pamiela, 2011.

lea”, jadanik ez da bakarrik sena, ezpada erraz identifika daitekeen ahots eta tonu propioa, nahasmenarena.

Oi, bost orrialdeko Gerediagaren diskurtsoak! Bidaian eroango zaituzte ahazturik zenituen subkontzienteko bazterretara. Arian ikonoklasta da eta, era berean, arian erlijiosoa eiteetan. “Zu” idealizatu bat maite du, baina jipoitu egiten du, ostikopetan darabil. Lurra eta zero garbi bat erakusten ditu behin eta berriz, eta heriotza eta bizitza eta heriotza eta berriro bizitza, harik eta, errenditurik, bat egiten duen den guztiarekin, bere diskurtsoaren benetako jatorria den isiltasun eternoarekin: “Zugan irauteko/ oi lur bero/ lur honexetarako ni/ lur beltz honexetarako betiko ni”.

Zergatik, orduan, hiltzeko, hainbeste irudi, hainbeste irudipen? Seguruenik, Rimbauden antzera edo Jim Morrisonen letretan lez, poeta ameslari batek maitasunaren, sufrimenduaren, zorianaren, zoramenaren ordenarik eza ezin duelako antolatu, soilik deskribatu. Bizi. Eta deskribatze horretan erre egiten da Gerediaga duda barik, dena emanez kontsumitu. Batzuetan irakurleak duda egingo du *Zentauro-bankak* ez ote den itsutzen duen distira hutsa. Egia esan, poema liburu asko galdu dira alferrik norabiderik gabeko dibagazioan. Gerediagaren kasuan ez. Gerediagak erakutsiko dizu kaosaren benetako erdigunea.



## Ermua

Liburu azoka maiatzaren 10etik 13ra, Cardenal Orben

### EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi irakurriz!*